

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: FLAUTA 2020ko MARTXOaren 2a

2020ko MARTXOaren 2an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **flauta** espezialitatean. Bertan Miguel Ángel Angulo eta Bruno Claverie espezialitateko irakasleek, Orkestra Errepertorio irakasleek, Pedro José Rodríguez pianista laguntzaileak eta Musikeneko flauta ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten flauta ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten flauta ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jarduanaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den errepertorioa barne.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.
- Musikenen sartu nahi dutenei gaintitu beharreko sarrera probei buruzko azalpenak ematea
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Sarrera proba gaintuz gero izango duten ikasketa plana azaltzea

Lan-egitasmoa

9.30-10.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Flauta espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probari buruzko azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

10.30-14.00: Musikeneko ikasleei eta ikasle aktiboei eskola irekiak.

15.00-17.00: Musikeneko ikasleei eta ikasle aktiboei eskola irekiak.

17.00: Musikeneko flauta ikasleen emanaldia

Non:

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus